

Menpekotasuna eta epe-luzeko zaintzaren irudikapen soziala: zaintza-kulturaren, antolaketa sozialaren eta harremanen eraldaketa

Tesiaren egilea: Uzuri Castelo Moñux

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila/Institutua: Gizarte Psikologia Saila

Doktorego-programa: Psikologia

Jakintza-arloa: Psikologia

Tesi-zuzendaria: Lorena Gil de Montes Etxaide eta Maider Larrañaga Egilegor

Tesiaren laburpena:

Doktorego-tesi honek garaiko zaintzaren krisian jendeak mendekotasunari eta zaintzari buruz dituen pentsamoldeak, sentipenak eta kudeaketa moduak ulertzea izan du helburu. Gizarte Psikologiaren arloan kokatzen den tesia da eta irudikapen sozialen hurbilpen teorikoa baliatzen da lanabes teoriko bezala (Moscovici, 1961; Jovchelovitch, 2007). Egunerokoan eta testuinguru soziokultural konkretuetan, mendekotasunaren eta zaintzaren inguruan eraikitzen eta hedatzen diren ezagutzak aztertze markoa eskaintzen digu irudikapen sozialen teoriak. Era berean, iruditeria horiek eguneroko praktiketan zer-nolako inplikazioak dituzten azaltzen laguntzen du, ikuspegi dialogiko eta kokatu batetik.

Bi atal nagusitan banatzen da tesia: bata, atal kualitatiboa, eta bestea, atal kuantitatiboa. Lehen atalean, etxeko esparruan aritzen diren zaintzako langileen, zaintzaren esperientzia bizi izan duten senideen eta zaintza-beharra duten adineko egoiliarren irudikapenak aztertu dira. Emaitzek erakutsi dute mendekotasunarekin eta zaintzarekin lotutako ezagutzak hainbat tentsiorekin artikulatzen direla (Familismoa vs Indibidualismoa, Produktzioa vs Erreproduktzioa, Mendekotasuna vs Autonomia, Naturalizazioa vs Profesionalizazioa, Etxea vs Erakundea, Partekatze komunala vs Merkatukoa, Zaintza emozionala vs Instrumentala). Era berean, ezagutza horiek gure esparru kulturean, antolaketa sozialean eta harremanetan nola eraldatzen ari diren ulertzeko marko teoriko-metodologikoa proposatzen da (Castelo *et al.*, 2022, 2023; Jovchelovitch eta Priego-Hernández, 2015).

Bigarren atalean, berriz, populazio orokorrera zuzendutako galdeketa baliatuz, zaintzaren testuinguru ezberdinetan kokaturiko konfiantzak sinesmen eta iruditeria soziokulturealekin duen lotura erakusten da. Horrekin batera, zaintza publikoarekiko konfiantzak —laguntza-zerbitzuak, eguneko zentroak, egoitzak, etab.—, neurri batean behintzat, belaunaldi zaharrenen ongizate orokorra aurreikusteko gaitasuna duela adierazten da. Azken ikerketa hori 2020ko Covid-19aren osasun-krisiaren eta konfinamenduaren garaian kokatzen dela aintzat hartuta, adinekoek irudikapen-

objektuarekiko zuten gertutasunak izan dezake zeresana emaitza horien azalpenean (Miguel *et al.*, 2012). Izan ere, pandemiaren inguruan hedatutako izu sozialak, zaintza publikoaren gabeziak eta adinkeriak modu esanguratsuan kolpatu zituzten belaunaldi zaharrenak eta horien inguruak (Ayalon, 2020; Comas-d'Argemir eta Bofill-Poch, 2022).

Oro har, tesi honen berritasun nagusia da mendekotasunari eta zaintzari lotutako esanahi soziokulturalak pertsonarteko alderdiekin eta portaerekin elkarrekintzan ulertzeko ikuspegi teorikoa baliatu izana. Gizartean mendekotasunari eta zaintzari buruz dagoen irudi bat ematen, eta irudikapen hori eztabaida-iturri eta dinamikoa dela erakusten da. Aplikazioari begira, fenomenoaren inguruan nola eztabaidatzen den ezagutzeak gako garrantzitsuak eman ditzake egungo gizarte konplexuetan zaintza ulertzeko eta kudeatzeko moduak lantzeko eta, aldi berean, politika publiko berritzaile eta duinagoak sustatzeko.